

Zenbait sekretu hizkuntzen irakaskuntza arrakastatsurako

Christopher Corsitto

Artikulugileak, ingelesa irakasteen duen esperientzia luzea baliatuta, hamar aholku prestatu ditu hizkuntz irakaslearentzat baliagarri.

I Umore onez irakatsi!

UMORE ONEZ IRAKATSI! USTEKABEAN HARRAPATU IKASLEAK! ZIRRARA ERAGIN! ZIRIKATU! EZ IBILI JIRA ETA BUELTAKA BETIKO KONTUEKIN! BATEZ ERE, EZ ERORI OHIKERIATAN.

Ez zaitez pailazoa izan, baina ikasleak entretenitu. Ariketak eta jarduerak oso onuragarriak dira, baina era berezi eta berrian eginarazi. Horrek esan nahi du eskolak efektu berezi “Zart”, “Danba” eta “Blaust”-koen antzeko bihurtu behar direla? Inolaz ere ez. Horrek esan nahi du esnatu egin behar direla ikasleak, horien arreta eta asimilatze-maila handiagoa izan dadin.

Ikasleek, askotan nekea azaltzen dute bat-bateko abiadura-aldaketak egiten direnean, lehenengo martxatik bosgarrenera adibidez. Zergatik? Ez daudelako horretara ohituta. Ohiko jarduera batean, sar itzazu elementu berriak eta desberdinak. Ez egin beti espero dutena eta ikasleak erne eta gogoberotuta edukiko dituzu.

Bizitza horrelakoa da, bat-bateko eta espero ez diren ustekabeez josia. Gertaerak ez dira ezinbestez linealak izaten. Zergatik, irakasle hori, jokatzen duzu beti berdin eskolan? Ez dut anarkia pedagogikoa edo ikasgelakoa iradokitzen. Baina, mesedez, saihestu gogaitasuna, ahalegin hori ikasleen onerako eta aurrerapenerako izango da zalantzarik gabe.

Orobat garrantzizkoa: zuri egingo dizu mesede, beti erne egongo zarela-ko, sormena, dibertsitatea eta originaltasuna sustatzeko. Ez ibili ikasleak ustekabeen harrapatzeko beldurrez, horiek berez ikonoklastak dira. Zuk modu konbentzionalari aurre egiten diozula ikusten dutenean, onartuko dute zure jarrera hori; mezu bat igortzen diezu: eskola honetan ustekabea eta espero ez dena da ohikoa, beraz presta ezazu zeure burua erne egoteko eta goza zaitez benetako ikasketaren bizipenarekin.

II Irakatsi ikasleei garrantzizkoak iruditzen zaizkien gauzak

IRAKATSI IKASLEEI GARRANTZIZKOAK IRUDITZEN ZAIZKIEN GAUZAK. GUSTU-KO KONTUAK AURKEZTEN BADIZKIEZU, HIZKUNTZA ATZERRITARRAREN PRO-BETXUA IKUSIKO DUTE. HORRELA, GRAMATIKA IKASTEAK ESANAHI BEREZIA IZANGO DU HAIENTZAT, ETEKINA IKUSTEN DUTENEAN; ETA EMAITZA AURRE-RAPENA IZANGO DA.

Oinarrizkoa beti da oinarrizko, eta guztiek ikasi behar dute. Bereziki, hizkuntzaren oinarrizkoa mintzairaren adreiluak dira, lehenbiziko eta ezinbesteko pausoa ikasketaren edozein gorabeheratan. Baina, oinarrizko horiek ezertarako balio al dute? Bai eta ez. Mundu guztia bat dator 10 ikasletatik 9 galduta ibiliko liratekeela gramatkarik gabe. Hala eta guztiz ere, zenbat da nahikoa? Benetan beharrezkoa al da iraganaren, orainaren eta geroakoaren forma sinple guztiak irakastea? Era berean ezinbestekoa al da forma konposatuak, eta bakoitzaren forma perfektua eta forma guztiak irakastea? Nire ustez, ez, ikasleak aurrera jarraitzeko arnasarik gabe utzi nahi ez badira behintzat.

Begira zeinen azkar adi-adi eta zabal-zabal dauden begiak begirada huts bihurtzen diren, ikasleei behin eta berriz hizkuntzaren edozein txikikeriari erreparatzeko eskatzen zaienean, edo 150 aditz irregularren iragana eta partizipioak ikasteko esaten zaienean. Baina, argi! Beste inon baino begi-bistakoagoa da, gauza horiek helduei irakasten zaienean.

Ikasleen buruak eta koadernoak oso gutxitan erabiltzen diren hitz arraroekin betetzen badituzu, zalantzarik ez izan ikasleak informazio-mendi baten azpian galtzeko arriskuan dagoela. Zergatik ez buru horiek probetxuzko gauzekin bete? 40 urteko enpresa bateko salmenta-arduradun bati bost axola zaio beste hizkuntza batean faunako animalia bakoitzaren izena jakitea.

Izan ere, ez al litzateke atseginagoa izango eta onuragarriagoa, gramatika eta esaldien oinarrizko gauzez jabetu eta gero, lanarekin zerikusirik duen hiztegia irakastea? Zalantzarik gabe, salmenten arduradunak hizkuntza berriaren probetxua ikusiko du, gogoberotu egingo da eta berez ulertuko du ikasten ari den hizkuntza atzerritar bat zein ederra den eta baliokoa, bere eguneroko beharrak asetzeko.

III Irakatsi zuri interesatzen zaizkizun edo ikasi nahi zenituzkeen gaiak

IRAKATSI ZURI INTERESATZEN ZAIZKIZUN EDO IKASI NAHI ZENITUZKEEN GAIAK. ELKARRERAGINEZKO HARTZEA ETA EMATEA NORABIDE BAKAR BATEKO KOMUNIKAZIOA BAINO ASKOZ ERE GUSTAGARRIAGOA DA DENENTZAT.

Begira diezaiogun berriz salmenten arduradunari. Agian, zu interesaturik egongo zara lanbide horretako gauzak jakiteko, agian ez. Eman dezagun salmenten arduradun horrek ateetako txirrinak saltzen dituela. Bai, ateetako txirrinak. Gehienek ez dute zirrara berezirik sentituko gizon horrekin hizketan hastean, ezta? Niri dagokidanez, oso deskuidatuta daude. Hasteko, txirrinak saltzea da gizon horren lana. Lehen begiratuan ez dirudi hain interesgarria denik, baina pixka bat aztertuz gero, antzeman liteke nolabait oso bestelako alderdi bat.

Zeuk egiten duzuna aintzat hartu gabe, imajina al dezakezu zeure burua ateetako txirrinak saltzen? Bale! Nik ere ez. Gizon horrek, ordea, hori

egiten du, eguneroko ogia ondo irabazten du. Espainian soilik %35eko merkatu-kuota dauka eta ia monopolio osoa Euskal Herrian.

Badirudi ez dela asko-asko ere, baina aldi batean bisitatzen nuen etxebizitzak edo etxe bakoitzak enpresa horren txirrina zuen. Horrek harri eta zur jartzen ninduen. Areago, pentsatu nuen: gizon honek milioi asko irabazi ditu txirrinak saltzen, izango ditu, beraz, nik gustura ezagutuko nituzkeen mila enpresa-sekretu.

Imajina al dezakezu zeure burua ate-txirrina saltzeko publizitate-kanpain bat diseinatzen? Bada, exekutibo horrek eta bere taldeak urtero egiten dute hori. Nik ez dut ideiarik ere, baina hori da kontua; informazio-apurrak edo zati asko jaso ditzakezula, ikasleei entzunda bakarrik.

IV Hizkuntza ikastea hizkuntza bera ikastea baino zerbait gehiago da

IRAKATSI IKASLEEI HIZKUNTZA ATZERRITAR BAT IKASTEA HIZKUNTZA BERA IKASTEA BAINO ZERBAIT GEHIAGO DELA: JARRERA BAT, JOKABIDE BAT ETA KULTURA BAT EZAGUTZEA DELA; ETA, HORRETAZ GAIN, HISTORIAZ, ENPRESAZ ETA GIZARTE-JOKAERAZ HOBETO JABETZEA ERE BADELA.

Hizkuntza bat ikasteko oztoporik handienetako bat ikaslearen hizkuntza berriarekin identifikatzeko gogorik eza izan ohi da, oinarritzko alderdi horiek lantzeko gogorik eza: hiztunen jarrerak, jokaerak eta kultura... Nik alderdi horiei hizkuntzaren abeze deitzen diet.

Oinarritzko gai hauek menderatzen ez badituzu, agian zure jarduera guztiek ez dute ezertarako balio. Hizkuntza berri bat eta horren hiztunak familiako edo hurbileko egiten direnean, aurreiritziak ezabatu egiten dira eta hau izaten da emaitza: adiskide lagun berri hauekin bat egite lagunartekoagoa.

Aztertu momentu batez zeure ikasleen oinarritzko abeze errealak. Gehienek “hizkuntza baten abeze erreala” zineman, telebistan, aldizkari herri-tarretan ikasten dute. Penagarria da, baina egia. Ikasleen beste kulturei buruzko iritziak batez ere komunikabideetako argazki eta irudietan oinarritzen dira. Amerikarrak horrelakoak dira, alemanak halakoak... Gehienek ez dute hizkuntza hori mintzatzen den herrialdea zuzenean ezagutu eta zapaldu. Hala eta guztiz ere, orojakiletzat hartzen dute beren burua, gehienetan oker badaude ere.

Azaldu ikasleei “kolorea zuriago bat paletan”. Ez izan beldurrik beren perspektiben espektroan kolore berriak sartzeko. Ikasleen pertzepzioa aldatzen duzunean, aurreiritzien hormak erori egingo dira, eta ikasketa sendotu, kultura berriaren onarpen handiagoa lortuz.

Askotan esaten diet Amerikako Estatu Batuetara joaten diren exekutiboei, ikus ditzatela bertako egunkariak enpresako bidaietan, ikas ditzatela bertako saskibaloiko jokalarien izenak, azter ditzatela bertako “izarrak”. Egin dezatela hori, eta komenta dezatela, ustekabeen bezala, hau eta hura bazkaltzeko garaian. Horrek tentsioa, monotonia eta ohikeria hautsiko ditu, eta bezeroei, hangoen bizimoduaz eta izaeraz duen interesa transmituko die. Hori da abezea: jarrera, jokaera eta kultura.

V Erabili trikimailuak irakasteko orduan

ERABILI TRIKIMAILUAK IRAKASTEKO ORDUAN. USTEKABEAN HARRAPATU IKASLEAK! MAGIAREKIN URRUTI HELDUKO ZARA. IKASLEREN BATEK ZENBATZEN EZ BALDIN BADAHI, ESAN IRAKATSIKO DIOZULA ORDUBETEAN MILIOI BATERAINO KONTATZEN. LORTZEN DUENEAN, BERE BURUAREKIKO KONFIANTZA AREAGOTU EGINGO DA ETA ZUREGANAKO LEIALTASUNA SENDOTUKO.

Saia gaitezen. Hizkuntza bat ikastea ez da jolasean edo paseatzen ibiltzea. Ikasle asko ikaragarri izutzen dira inoiz izan ez diren lekuren batean sartzen direnean, akademia ultramodernoren batean, edo lantegiko eskola pribatu batean, esate baterako. Ikasle batzuentzat hizkuntza bat ikastea lan gogorra da, ia-ia zigor fisikoa, motibazioa eta adorerik ez badute. Bukararik gabeko ordu luzeetan nazka-nazka eginda egongo da ikaslea, bertako irakasleak eta kanpokoak, txandaka, bueltaka dabilen zaldiko-maldiko baten antzera, ikasleen interesekin inolako zerikusirik gabe irakasten aritzen direnean.

Apatia agertzen da eta geldotasuna, eta orduan hasten da benetako borroka latza. Zer egin dezake irakasleak? Lehenik eta behin, ez utzi gauzak hain urrutira joaten. Ze joaten utzi baduzu, segur aski entzuleria galdua izango duzu. Baina, jendea oraindik entzuten ari zaizu. Magia martxan jartzeko ordua da. Lortu emaitza azkarrak. Normala da zu besteak baino lehenago ura xukatzen hastea. Erabili ordubeteen zerotik milioira zenbatzen irakasteko trikimailua. Konfiantza-airea arnasten hasiko dira ikasleak. Orain dela ordubete lur jota zegoen ikaslea, ezinezkoa zen zer bait benetako bihurtzen dela ikusita, adoretu egingo da (gehienek ordu-erdiaren batean ikasi ohi dute). Orduan ikasleak hizkuntza bat ikasteko gai dela sinetsiko du.

Azter ezazu ikasleak eguneroko ogia nola irabazten duen, zein lanbide-tan, eta emaiouzu enpresako gauzez, produktuez eta bere buruaz aritzeko behar duen hiztegi egokia. Ezer ez jakitetik aitaren batean zer bait ikasteak, sekulako adorea eta konfiantza ematen dizkio ikasi nahi duenari.

Maila ertaineko nire ikasle askok aurkezpenak egiten dituzte atzerrian, beste hizkuntza batean. Gehienek eroso sentitzen dute beren burua aurkezpenarekin berarekin. Behin eta berriz ariketak gelan egin ondoren, beren burua gai ikusten dute goi-mailako hitzaldi bat nonahi eta edonoren aurrean egiteko. Arazoa sortzen da entzuleak galde-erantzunen atalean galdezka hasten direnean. Orduan, ikasleen segurtasunik ezak ez du mugarik izaten, ikaragarria izaten da.

Arazo hori konpontzeko, trikimailu bat erabiliko dugu. Ikasle exekutiboak konturatzen dira kongresu guztietan entzuleen galderak oso antzekoak izaten direla. Beraz, galderak aurrez prestatzen ditugu, baita erantzunak ere. Hori eginda, hitzaldiaren galdera-erantzunen atala primeran gauzatu-tuko da. Hori lortuz gero, exekutibo beldurtia zena, adorea izango du atzerrian hitzaldiak egiteko. Magia: Artzila, murtzila!

VI Irakatsi ikasleei hizkuntza baten zergatia

IRAKATSI IKASLEEI HIZKUNTZA BATEN ZERGATIKOA. ADIBIDEZ, EXEKUTIBO BATI GALDETU ZIOTENEAN ZERGATIK ZEN GARRANTZITSUA GALDERAZKO FORMAK IKASTEAN, ERANTZUN ZUEN: “GALDETZEN DUZUNEAN, INFORMAZIOA LORTZEN DUZU, ETA INFORMAZIOA DUZUNEAN EGOERA KONTROLATU

EGITEN DUZU”. BEZERO BRITAINIARREKIN ARITU BEHAR ZUELA OHARTUTA, GALDERAZKO FORMAK IKASI ZITUEN.

Zergatik ikasten dugu alfabetoa? Besteak beste, letreiatzeko gai izateko eta, are garrantzitsuagoa, irakurtzeko eta hitzak erraz identifikatzeko.

Zergatik ikasi zenbatzen? Begi-bistakoa da, diru-transakzioak egiteko.

Zergatik egiten ditugu gramatika-ariketak? Ariketak egitea ona omen delako gauzak hobetzeko, perfektzionatzeko. Eta ariketak egitea ikasteko oso metodo ona da, zalantzarik gabe.

Ados, baina zer dago honen guztiaren azpian? Lehen idatzi duguna ongi irakurri eta horra hor erantzuna. Zergatik?

Ikasleek garbi ikusi nahi izaten dute hizkuntza bat ikasteko arrazoiak. Hori egiten dutenean, hizkuntzaren balioa, probetxua eta garrantzia aitortzen dute. Gauza gehienetan bezala, zerbaiten funtzioa ulertzen duzunean, zeure bizitzarako garrantziaren bila ibiltzen zara. Argi eta garbi ikusiz gero, hizkuntza zeure behar pertsonalei egokitzen saiatzen zara.

Picasso, Monet eta Matisse-ren koadroak saltzen dituen arte-merkatari ezagun bati galdetu ziotenean, ea nola negoziatzen zuen ingelesa mintzatu behar den nazioarteko arte-merkatu zail horretan. Merkataria, 50 urtekoa, pragmatikoa, ingelesez apenas “hello” esaten zekiena, hau esanez azaldu zen: “Hartzen dut paper bat, kopuru bat idazten dut, 3 milioi dolar, esate baterako, eta erakutsi egiten dut”. Horra hor xalotasunaren harribitxia! Desiragarri den zerbait erakustea.

Galderak egiteari buruzko erreferentzia ezin da gutxietsi. Izan gogoan sail honen hasieran aipatutako exekutiboaren kasua.

Mintegi asko zuzendua bainaiz, beti azpimarratzen dut beharrezkoa dela galderazko forma menderatzea. Nola jakin, bestela, bezeroak pentsatzen duena? Nola jakin haren gogobetetze-maila? Uste al duzu zurekin interesaturik dagoela? Agian bai, baina beti zu harekin interesatuta baldin bazaude soilik.

Uste dut ikasleek aukera ezin hobeak dituztela hizkuntza-eskoletan galderai erantzuteko. Irakasleek oso gutxitan ibili behar dute ikasleak galderak egitera bultzatzen.

VII Erakutsi ikasleei hizkuntza batek interesa nola sor dezakeen

ERAKUTSI IKASLEEI HIZKUNTZA BATEK INTERESA NOLA SOR DEZAKEEN. ADIBIDEZ, ZUK ERABILTZEN BADITUZU HASI BERRIAK ERABILTZEN DITUEN ADJEKTIBOAK BERAK, OSO IKASLE GUTXI IZANGO DUZU ETA DENBORA GUTXIRAKO. MINTZAIRA ZABAL ETA KOLORETSU BATEK ALDERANTZIZKO EFEKTUA ERAGITEN DU. JENDEAK ENTZUN EGIN NAHI DU ETA DAKIZUNA BAINO GEHIAGO DAKIZULA IRUDITUKO ZAIO.

Hizkuntza-ikasleek oker bat egiten dute: beren gustuko gunean hitzak, esamoldeak eta egitura erraz eta erosoak erabiltzea. Nik “gune erosoak” esaten diot. Horrek ondorio kaltegarri ugari ekarriko ditu epe luzera, nagiak izatera bultzatzen ditu ikasleak, segurtasunaren alde jokatzera, eta beti “ezagutzen duenera jotzea”.

Gogorarazi egin behar zaie ikasleei ikusmolde horren alderdi txarra. Segur aski ikasleak lortuko du nolabait komunikatzea, eta ulertuko diote, baina jendea oso zorrotza izan ohi da, asko exijitzen du eta presaka bizi da. Badirudi ohiko jendearen jarrera hau dela: diberti nazazu, entretenei nazazu, informa nazazu, eta ez zaitez gogaikarria izan. Ikasle bat “burutsu” eta “polita” ikasteko gai baldin bada, berdin-berdin, beste hitzak ere “harroputz”, “karismatiko”, “axolagabe”, eta “zalantzazkoa” hitzak ere buruan sartzeko gai da.

Irakaslea ikaslearekin bigunegia baldin bada, batik bat haren garapena ari da zabartzen. Ez da aski bestek ulertzeko moduan hitz egitea, mintzairak bizia behar du izan eta ez gatzik gabea. Hitz “handiak” ez dira jeneralean hain handiak izaten, askotan ikaslearen berezko mintzairan dute jatorria eta, hain zuzen ere, errazagoak dira ikasteko, beste “txikiak” baino: “high”, “tall” et “thin” baino, hauek ez baitute inongo antzik ikaslearen jatorrizko hizkuntzaren ezertxorekin.

Jakina, ezin zaio umeari korrika egiten erakutsi ibiltzen hasi baino lehen. Ikasle batek hizkuntza batean denetarik sartzen duenean, ezagutzak goranzko kurbaren forma hartuko du, hark zalantzarik gabe harrituta utziko ditu entzuleak eta arreta sortuko du inguruan. Entzuleen erantzunek ikasleari bere ezagutzak irmotzeko balioko diote eta aurrera egiteko adorea emango.

VIII Irakatsi ikasleei ausartak izaten

IRAKATSI IKASLEEI AUSARTAK IZATEN, HIZKUNTZA ESPERIMENTATZEN ETA PROBAK EGITEN. AUSARTZEN EZ DENAK EZ DU IKASIKO. HAURTZAROAN GERTATU ZITZAIGUNAREN ANTZEKO PROZESUA DA. UME TXIKIA HASTEN DA GURPIL TXIKIEZ LAGUNDUTAKO BIZIKLETAN IBILTZEN. GERO, LEHENTXEAGO EDO GEROXEAGO, GURPILAK KENDU EGIN BEHARKO DIRA.

Barregarri geratzea izan ohi da askoren beldurra, eta ez hizkuntza-ikasleena bakarrik. Denok sentitu dugu, gehiago edo gutxiago, beldur hori.

Beste inon baino nabarmenagoa izaten da beldur hori hizkuntza-ikasleen artean. Ingelesa ikasten ari diren askori, adibidez, iruditzen zaie hizkuntza horrek doinu pinpirinegia duela, itxuratiegia, eta jatorrizko ingeles baten ahoskera-tonua gehiegizkoa dela.

Beraz, ikasle horiek kikildu egiten dira hizkuntza berri horren mintzaira, jarrera eta jokaera gauzatzean. Ikaslearen erreakzio hori txarra da, nire ustez, hizkuntza ikasteko eta bereganatzeko.

Ikasleei bihotz eman behar zaie hegan egin dezaten. Eguneroko elkarrizketa arruntek ez dute hitzaldi publiko baten alderdi zailak izaten. Beraz, nire aholkua da: lasaitu, gozatu eta hizkuntza jostailu berri bat balitz bezala erabili.

IX ustezko oztopo asko norberak asmatuak eta ezarriak dira

IRAKATSI IKASLEEI HIZKUNTZA BAT IKASTEKO. ADIBIDEZ, HIZKUNTZA ERABILTZEN EZ DENEAN, GALDUZ JOATEN DA; EZ ATZERA ETA EZ AUERRERA, KATEATUTA, GERATZEN GARENEAN, BESTE BIDEAK BILATU BEHAR DIRA. EZ DA EZER GOGORRAGORIK ETA SUNTSITZAILEAGORIK TRABATUTA GERATZEA BAINO.

Erabiltzen ez bada, galdu egiten da. Hizkuntza-pedagogoei badakite aspalditik printzipio hori egia dela. Ikusten dugu erabiltzen ez diren gauza

pertsonalek hautsa eta armiarmak biltzen dituztela, edo herdoildu egiten direla. Berdin-berdin gertatzen hizkuntzekin ere. Bizirik eduki nahi bada, ahal den guztietan erabili behar da, zenbat eta gehiago erabili, hobe.

Hizkuntza, landareak bezala, nolabait bizidun da, ureztatuz eta ondo zainduz bakarrik iraun dezake bizirik. Ahalegin bakoitzak bere sariak jasoko ditu: solasaldiak, jatorrizko bertsioan filmak ikustea, zintak entzutea, multimedia-sistemak erabiltzea, eta abar.

Adoretu itzazu ikasleak horren bila joan daitezen. Zergatik izan isilak eta lotsatiak? Zure ikasle italiarrak edo espainiarrak hitz egoki baten ziurtasunik ez badute, anima itzazu latinezko baliokidea bilatzen. Ingelesak, bere eratorri askorekin, askotan hitz berdina erabiltzen du, ia berbera. Hori lasaitasuna zure ikaslearentzat, ez duela hitz berri baten ikasi edo bilatu beharrik izango egiaztatzen duenean.

Hizketan hitz zuzena bilatzeko gelditzea da ikasleak egin dezakeen hutsegiterik handienetakoa, “grosse fehler” alemaniarrek esaten duten bezala. Oker larria! Ez da ezer etsigarriagorik, horma linguistikoko baten kontra muturrekoa hartzea baino. Esaten duzuna esaten duzula, hori porrota da.

Arazoaren gakoa ez gelditzea da, aurrera egin behar da, azkar, hitz edo adierazpen horretarako alternatibak bilatu behar dira. Ikaslerik gehienak hori egiteko gai dira elkarrizketa berez doanean, ikaslearen konfiantza areagotu egiten da. Sinplea da, ezta?

X Ulertzea denon kezka da

ADIERAZI IKASLEARI ULERTZEA –ETA HORI DENENTZAT IZATEN DA KEZKATZEKO – EZ DELA BURUTIK EZIN KENDURIK EGOTeko ADINAKO KEZKA. INORK EZ DU %100EAN ULERTZEN, EZTA JATORRIZKO HIZTUNEK BEREN ARTEAN ARI DIRENEAN ERE. SARRITAN ASKI DA HITZAK ETA ADIERAZPEN FUNTSEZKOAK KOKATZEA.

Ikasle asko eta asko maiz estutzen dira nahi hainbat ulertzen ez dutelako. Badira nolabait esan nahi dutena esateko kapaz, baina beren buruak galduta ikusten dituzte eta noraezean ibiltzen dira jatorrizko hiztunari, solaskideari, ulertzen ez diotenean, eta horrek hizketan jarraitzen duenean. Ikasleek ez lukete alferrik kezkatu behar. Etsipenerako bidea da hori.

Nire iradokizuna da, ikasleek mendera dezatela dedukzioaren artea; sedukzioa ez, dedukzioa baizik. Kontuan hartu beharreko lehenengo gauza da oso pertsona gutxi ulertzen dutela –ez dezagun aipa aditzen edo entzuten– %100ean. Jatorrizko hiztunen artean baliteke arreta beste zerbaitetara bildua edukitzea, eta, beraz, ez dute askotan oso-osorik entzuten, are gutxiago ulertzen. Dena dela, berriketan ari diren bi pertsonak elkar ondo ulertzen dute, edo behintzat, hala frogatzen dute.

Zergatik? Ohartu gabe hitz eta adierazpen funtsezkoak kokatzen dituztelako, eta mezu orokorra jasotzen dutelako. Hori da dedukzioaren artea,

eta hizkuntza-ikasleek praktika gehiagoren beharra izaten dute. Horrela egiten badute, konturatuko dira hitz batzuk “harrapa” ditzaketela, ondoren esaldi batzuk, geroago mezuaren mamia, eta azkenik, horra hor!, mezua bera.

Hizkuntza-ikasleek askotan esaten didate ez dutela ia arazorik izaten enpresari eta produktuari buruzko aurkezpenak egiten dituztenean, gar-denkiak, efektu optiko digitalizatuak eta diapositibak erabilia.

Hala ere, aurkezpenaren ondorengo galdera-erantzunen saioan kontua oso bestelakoa da, eta ez ikasleek lanarekin zerikusirik duten galderei erantzuteko gai ez direlako, askotan galderak ulertzen ez dituztelako bai-zik.

Nire iradokizuna da: itzul gaitezen dedukzio-artearen ikusmoldera, eta saia gaitezen hitzak edo adierazpen funtsezkoak kokatzen, edo egingo dituzten galderak aurrez prestatzen. Bi edo hiru hitz entzuten dituenen, ezaguna egingo zaio galdera eta behar bezala erantzungo dio.

Arrisku handiko estrategia al da? Benetan, ez. Aurkezpen komertzial edo profesionalak gehienetan antzekoak izaten dira. Normalean galdera berdinak egiten dira, hitzaldia egiten den lekuan egiten dela. Baliteke pare bat ustekabeko gertatzea, baina normalean konpondu liteke hori “aztertuko dut gero hori” esanez.

Dedukzioaren artea aplikatu daiteke telebista ikusten denean, zineman, egunkariak eta aldizkariak irakurtzean, egoera guztietan.

Horrela beraz, ez kezkatu den-dena ulertzen ez baduzu, jardun eta goza ezazu hizkuntza berria.

Itzultzailea: Iñaki Ugalde